

## **MOZIO ARRUNTA,**

### **FRANCISCO ESCUDERO MUSIKA KONTSERBATORIO PROFESIONALAK DITUEN BEHARRAK DIRELA-ETA**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du, Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalak dituen beharrak direla-eta.

#### JUSTIFIKAZIOA

1877an Donostiako Udalak Solfeo Eskola sortu zuen, Juan José Santesteban edo eta Raimundo Sarriegi irakasle zituelarik. Bi urte geroago, 1879an, eskola nukleo bezala hartuz, Musika Udal Akademia ofizialki sortu zen. 1936ko otsailaren 28an Instrukzio Publiko-Ministerioak baliotasuna aitortu zion eskolari eta Oinarrizko Gradu Kontserbatorio bat bihurtzera pasa zen. Hiru urte geroago, 1939ko apirilaren 15ean Goi Gradu ikasketetarako baliotasuna ere aitortu zitzaion.

1998an Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzaren Heziketa Departamentuaren irakaskuntzetako irakaspenetako sare publikoan sartu zen eta prozesu honek amaiera eman zion 119 urteko udal kudeaketari. 2000.urtean Oinarrizko Grada Kontserbatoriora gehitu zen eta 2002/2003 ikasturtetik aurrera Musika-Batxilergoa ezarri zen, eskaintzen duen herriko zentro gutxietako batean bihurtuz.

2004ko Irailaren 21eko Ordenaren Aginduaren arabera Musika Kontserbatorioa BOPV-ean argitaratua, Francisco Escudero Kontserbatorioa deitzera pasatu zen, musikari gipuzkoarra omenduz.

Gaur egun Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpe, "Francisco Escudero" Musika Kontserbatorio Profesionalak araututako Oinarrizko eta Profesional Irakaskuntzak eskaintzeaz gain, eskolaz kanpoko jarduerak eta ikastaroak antolatzen ditu, ikasleriaren curriculum sendotzeko helburuarekin.

Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari Easo kaleko 45. Zenbakiko eraikina 1998ko abenduaren 15ean dohaintzan eman zion. 20 urte hauetan adabakiak jartzen ibili behar izan da bata bestearen atzetik, eta memento honetan egoitzak muga handiak ditu horrelako ikasketa zentro batek duen jarduera modu egokian garatzeko.

Jakin badakigu hezkuntza alorreko organo eskudunak –zehazki, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak– bermatu behar duela zerbitzu hori, baina Donostiako Udalak ere babestu behar ditu hiritarren eta hiriaren interes eta eskubideak.

Halaber, bistakoa da tartean dauden erakundeek eta hezkuntza komunitateak elkarrekin lan egin behar dutela, horrexegatik, hauxe da gure MOZIO ARRUNTA:

### **MOZIOA ARRUNTA**

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak Hezkuntza Sailari eskatzen dio, Francisco Eskudero Kontserbatorioko Zuzendaritza eta Organo Gorenarekin batera, aztertu dezala Kontserbatorioak bere curriculuma duintasunez gauzatzeko baldintza eta kokapen egokiak zeintzuk lirakekeen eta, ondorioz, aurkitzeko zentroaren beharrak aseko dituen espazioa, Udalbatzak bere lankidetzara osoa eskaintzen diolarik horretarako.

2.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, behin Udalarekin eta kontserbatorioarekin bertako curriculuma duintasunez garatzeko proiektua adostu denean, ahalik eta azkarren garatu dezala proiektua eta doitu dezala aipatutako proiektua gauzatzeko aurrekontua.

Donostian, 2018ko ekainaren 1ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
**EH Bildu udal taldeko bozeramailea**